

DANTZA ESPEZIALITATEA

Ibilbidea: “Euskal dantza”

Dantzertin, Dantzaren Goi Mailako tituluan *Euskal dantzan ibilbidea* osatzeko proposamena da honako hau. Ibilbide honen helburua goi mailako dantza ikasketak Dantzertin burutuko dituen ikasleak euskal dantza tradizionalaren oinarriko ezagutza bat izatea da. Euskal dantzaren ezagutza hau ikaslearen dantza ibilbidean bai interpretazio eta bai sortze lanetan osagarri eta aberasgarri izango zaio.

Aurreikusitako lau ikasgaiak honakoak dira:

- Euskal dantzaren teknika I
- Euskal dantzaren erreperorioaren analisisa eta praktika
- Euskal dantzaren teknika II
- Euskal dantzaren teoria eta historia

Ibilbidea osatze bidean, ezinbestekoa da *Euskal dantzaren teknika I* ikasgaia gaituztea *Euskal dantzaren teknika II* eta *Euskal dantzaren erreperorioaren analisisa eta praktika* ikasgaiak egin ahal izateko.

Hautazko irakasgaien deskripzioa

1. Euskal dantzaren teknika I

a. Irakasgaiaren justifikazioa:

Euskal dantzaren teknikaren ikasketa, berau osatzen duten mugimenduen eta sistemen ezagutzan abiatzeko klase praktikoek bidez. Ikasgai honetan bai herri dantzetako teknika eta bai dantza preklasikoetan identifikatu daitezkeen ere, biak jorratuko dira. Euskal dantzaren teknika I-ean euskal dantzan aurki daitezkeen sistema nagusien erritmo eta mugimendu oinarriak definituko dira, eta oinarri horien lanketa lehenetsiko da.

b. Ikasgaiaren izaera:

Praktikoa

c. Edukiak:

Herri dantzei dagokionez honako sistemetako teknikak landuko dira:

- Dantza itineranteen, dantza-luzeen, karrika-dantzen eta martxen teknika.
- Soka-dantza, egitura koreografikoa: ezaugarriak eta baliabideak
- Ingurutxoak, borobila, soka eta bikotearen antolaketa, bilakaera koreografikoa.
- Kontra-dantzak, figuren sistema, eragina eta aztarnak euskal dantzetan
- Bikote dantzak, konpas bitarren eta hirutarren oinarritzko erritmoak ezagutuz: pausobikoa, polka, foxa, boleroa, baltsa, mazurka, habanera eta exkotixa.
- Dantza soltea, konpas bitarren eta hirutarren oinarritzko erritmoak ezagutuz: jota/fandango eta arin-arin/porrua eta horien oinarritzko dantzarako teknika.
- Dantza-jauziak: oinarritzko urrastegia ikasi eta markatutako jauzien sisteman barneratu.

Dantza preklasikoen teknikari dagokienez, honako hiru sistema jorratuko dira:

- Gipuzkoako dantzetako teknikaren lanketa, urrats, aldaira eta dantzen progresioa jarraituz.
- Zuberoako dantzetako teknikaren lanketa, aitzineko puntuen alfabetotik abiatuta dantzen osaketarako konbinatoria sistemara bidean.
- Durangaldeko dantzari-dantzaren teknikaren lanketa, urrats eta esaldien konposizio ohikoak ezagutuz.

2. Euskal dantzaren errepertorioaren analisisa eta praktika

a. Irakasgaiaren justifikazioa:

Ikasgai honen helburua euskal dantza tradizionalaren errepertorioko dantza esanguratsuen ezagutza teorikoa jaso eta interpretazio praktikoa lantzea da, horiek bere baitan dituzten ezaugarri koreografikoak eta estilistikoak barneratuz. Horrela, euskal dantzaren errepertorioan sakonduko da, bere analisi praktikoa, bisual eta teorikoa landuz, historikoki, geografikoki, kulturalki eta sozialki dituzten balioak jorratuz.

b. Irakasgaiaren izaera:

Teorikoa/Praktikoa

c. Edukiak:

Dantza tradizionalen sailkapen irizpide koreografikoak (Sachsen eredua; Urbeltz eta Quijerak euskal dantzetan aplikatutakoa) baliatuz, tokian tokiko dantza errepertorioen osagaiak jorratuko dira, dantza bakoitzari dagokion fitxa etnografikoa aintzat hartuz: tokia, festa, estiloa, janzkera, musika, teknika eta testuinguru koreografikoa. Lantzeko errepertorioa:

- Ezpata-dantzak. Egituraren oinarriak (kate sistema), figurak (zubiak, zintzarriak,...) eta adibide praktikoa: Xemein, Zumarraga, Legazpi, Lesaka, Deba, Bera, Goierri,...
- Trokeo-dantzak. Sistemaren oinarriak (trokeoa), tresnen erabilera (makilak, ezpatak, uztaiak, zinta-dantzak...) eta adibide praktikoa: Durangaldeko dantzari-dantza, Villabuenako *paloteadoak*, Eltziegoko dantzak, Berastegiko San Juan dantzak, Gipuzkoako brokel-dantza, Erriberako *paloteadoak*...
- Soka-dantzak eta ingurutxoak. Sistemaren oinarriak, bilakaera koreografikoak eta adibide praktikoa.
- Desafio eta bertuosismoko dantza indibidualak: kaxarranka, txakolin, soinu-zaharrak.

3. Euskal dantzaren teknika II

a. Irakasgaiaren justifikazioa:

Euskal dantzaren teknikaren ikasketa, berau osatzen duten mugimenduen eta sistemen ezagutza sakontzeko klase praktikoen bidez, interpretazio autonomoa eta trebea lortzeko

helburuarekin. Ikasgai honetan, Euskal Dantzaren Teknika I ikasgaiaren ezagututako herri dantzetako teknika eta dantza preklasikoen teknikan sakonduko da, bai oinarrietatik abiatuta apaindurak ezagutuz, bai estilo nagusiak landuz eta bai tradiziozko sistemak eskaintzen dituen bat-bateko sormen aukerak esploratuz.

b. Irakasgaiaren izaera:

Praktikoa

c. Edukiak:

Herri dantzei dagokionez honako sistemetako tekniketan sakonduko da:

- Dantza itineranteen, dantza-luzeen, karrika-dantzen eta martxen teknika.
- Soka-dantza, egitura koreografikoa: aukerak eta eboluzioak.
- Ingurutxoak, borobila, soka eta bikotearen antolaketa, aukera koreografikoak.
- Kontra-dantzak, figuren sistemaren aplikazio sortailea.
- Bikote dantzak: sistemen aldaerak eta jolasak, biko eta hiruko erritmoetan.
- Dantza soltea: sistemen aldaerak eta jolasak, biko eta hiruko erritmoetan.
- Dantza-jauziak eta mutil-dantzak, estiloak bereizi eta buruz dantzatzen ikasi.

Dantza preklasikoen teknikari dagokienez, honako hiru sistema jorratuko dira:

- Gipuzkoako dantzetako teknikan sakontzea, urratsen interpretazio teknikoa zehatzuz eta aldairen bat-bateko osaketan trebatuz.
- Zuberoako dantzetako teknikan sakontzea, aitzineko puntu nagusien menperatzea eta dantza nagusien (barrikada, godaleta, branletik jaustea...) esaldiak osatuz.
- Durangaldeko dantza-teknikaren alfabetoa osatu, eta urrats eta esaldien konposizio ohikoak eta ereduak jorratu erregelen sistemara bidean.

4. Euskal dantzaren teoria eta historia

a. Irakasgaiaren justifikazioa:

Ikasgai teorikoa izango da honakoa, eta euskal dantza tradizionalen kontzeptualizazio egokia barneratzeko oinarri teoriko eta metodologikoak ezartzea eta euskal dantzaren historiaren ikuspegi orokor bat eskaintzea du helburu. Ikasgai honen bidez, teknika eta erreperitorioari dagozkion ikasgaietan jorratuko diren tokian tokiko dantzen sistemak dagokien testuinguruan ulertu eta interpretatzeko baliabideak izango ditu ikasleak.

b. Irakasgaiaren izaera:

Teorikoa

c. Edukiak:

Euskal dantzaren historiari begirada kronologikoa eskaini aurretik kultur ikasketen marko teorikoa kokatuko da. Dantza tradizionalaren eta folkloreakon kontzeptualizazioan eragina duten jakintza alorretara, hala nola, folklore eta antropologia ikasketetara hurbilketa egingo da. Horietan oinarrituta, korrante teoriko nagusien ezaugarriak eta ekarpenak, eta ohiko kontzeptuen (tradizioa, herri-dantza,...) definizioak jorratuko dira. Ikasketa etnokoreologikoen aplikazio praktikoak aztertuko dira, bai nazioartean eta bai euskal dantzari dagokienez ere, eta erreferentziatzeko autoreak ezagutzeko tartea hartuko da.

Perspektiba historiografikoa euskal dantzari aplikatuz, Antzinetatik Erdi Arorako begiradan, aipuen, mitoen eta topikoen artean irakurketa kritikoa egiteko tresnak eskainiko dira. Bepizkundeko dantza-maisuen sistema eta bere aztarnak herri dantzetan aztertuko dira, eta XVI. mendetik XIX. mendera bitartean, euskal dantza eremuan nagusi izan diren soka-dantzak izango dira aztergai.

Aro Modernoan, testuinguru erritual eta protokolarioetan indar handia izan zuten ezpata-dantzak, trokeo-dantzak eta Valentziarren dantzak ezagutuko dira. Balletaren sorrera garaia euskal dantzaren perspektibatik begiratuko da, mitoa eta historiaren arteko loturak identifikatuz.

Urtea urtaroetan antolatu izan duen kultura tradizionalan, neguko festek, inauteriak barne, dantza sistema erritualean kokatzen lagunduko dute. Udako festetan, Besta Berri, San Joan, tokian tokiko zaindari eta Ama Birjinen egutegia lagun, dantzak jokatuak gorputz errituala agerian jarriko da.

Seminario eta armadako dantza ikasketak eta tokian tokiko tradizioekiko loturak, dantza-maisu dinastien azken katebegiak eta XIX. mendeko tradizionalismo erromantikoa izango da aztergai azken-aurreko etapa kronologikoan. Dantzaldia, modaz moda eta erritmoz erritmo, plazako dantzetan utzi duen arrastotik tiraka berregingo da. Eta emakumearen dantza-protagonismoa, bazterketa eta debekuen historiaren ginetik dantzan dirauena ikustaraziko da.

XX. mende hasierari begirata, euskal abertzaletasunak eragindako berregite koreografikoa, ezpata-dantzari eta poxpolinen egituratzea, eta euskal dantzaren lehen eszenaratze eta balletizazio esperientziak jorratuko dira. Baita Frankismo garaiko lehen hamarkadan ilunak eta 60ko hamarkadatik aurrerako berpizkunde kulturala, euskal dantza modernitatera ekartzeko ahaleginean. Gaur egungo euskal dantzaren joerei begiratuz borobilduko da ikasgaia.